



Sagardoetxea
herri baten erroak

SAGARDOETXEA, UDAKO AISIALDI ESKAINTZA 2012
Zatoz gurekin gozatzera!"

Kontaktua

Leire ALKORTA 943 550 575
prentsa@sagardoetxea.com

SAGARDOETXEA, UDAKO AISIALDI ESKAINTZA 2012

Zatoz gurekin gozatzera!

Sagardoetxea Museotik, sagastiaren eta museo-gunearen errealitatea aisialdi taldeen eskura jartzen dugu beren 2012ko udako aisialdi programetarako (udaleku irekiak, gazte txokoak, ludotekak, etb...) jarduera aberasgarri gisa **"Sagarrak biltzen"** eta **"Sagardoa eta itsasoa"** jardunaldiekin.



Sagardoetxea **sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura** zabaltzeko museo gune bat da. Museoen kontzeptu tradizionaletik desberdina da, sagarrondoen bizitza eta sagardoaren elaborazio prozesua modu aktiboan ezagutzeko aukera ematen baitu, gauzak ikusiz, jardueretan parte hartuz eta produktu ezberdinak dastatuz.

Proposaturiko eskaintzaren helburuak, hurrei **sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzea** eta hurrek landa inguruneke **euskara ezagutu eta praktikatzea** dira.

Horretarako, honako jarduera hauek garatzea proposatzen dugu:

GOIZEAN:

- Sagardoetxearen bisita, 2 aukera izanaz: **"Sagarrak biltzen"** / **"Sagardoa eta itsasoa"**.

EGUERDI-ARRATSALDEAN (hautazkoa):

- Astigarragan bazkaldu eta pilotalekuan jolas libreak.
- Astigarragako igerilekuan bazkaldu eta arratsalde-pasa.

SAGARDOETXEAN BISITA ETA JOLASAK

Aurten joko ezberdinen bidez bi proposamen hauek lantzeko aukera izango da: **"Sagarrak biltzen"** edo **"Sagardoa eta itsasoa"**:



"Sagarrak biltzen"

Sagardoaren elaborazio prozesua ezagutarazteko helburuz, honako jarduerak garatuko dituzte hurrek: kizkiarekin **sagarrak bildu** eta jolas ezberdinak: **bola-jokoa, toka, Dastiren joko ibiltaria**, etb...



"Sagardoa eta itsasoa"

Sagardoak itsasoko bizimoduan izan zuen garrantzia ezagutarazteko helburuz, honako jarduerak garatuko dituzte: balearen bila joateko **itsasontzi** baten eraikuntza eta **balearen arrantza** txalupetan. Ondoren, **bestelako jokoak** garatuko dira.

Oharrak:

- Aisialdi taldeak **"Sagarrak biltzen"** edo **"Sagardoa eta itsasoa"** jardunaldia aukeratu beharko dute.
- Sagardoetxeako gida batek zuzenduko ditu museoko bisita eta jolasak.
- Jarduera hauek, 3-12 urte bitarterako haurrentzako zuzenduak daude.
- Jardunaldiaren iraupena ordu 1 eta 30 min ingurukoa izango da, baina talde bakoitzak duen denboraren arabera egokitu ahal izango da bisitaldia.

ASTIGARRAGAN BAZKALDU ETA PILOTALEKUAN JOLAS LIBREAK (A PROPOSAMENA)



Herriko plazan dagoen pilotaleku estaliak bazkaltzeko eta jolaserako aukera egokia eskaintzen dute. Hori horrela izanik, zuen herrietara itzuli aurretik Astigarragan bertan bazkaltzeko eta bazkalostean hurrekin jolasean aritzeko aukera izango dezute.

Oharra: Jolas hauek libreak direnez, ez ditu Sagardoetxeako gidak zuzenduko, begiraleak baizik.

ASTIGARRAGAKO IGERILEKUAN BAZKALDU ETA ARRATSALDE-PASA (B PROPOSAMENA)

Astigarragan egun pasa osatu nahi dutenek, Astigarragako igerilekura joateko aukera izango dute, bertan bazkaldu eta arratsalde dibertigarri bat pasatzeko. Igerilekuan, ur-jolasak lantzeko eta atsedenaldira gozatzeko aukera izango dute hurrek.

Oharra: Jolas hauek libreak direnez, ez ditu Sagardoetxeako gidak zuzenduko, begiraleak eta igerilekuko arduradunak baizik.

Tarifak

Sagardoetxeako jarduerak 2 euro haur bakoitzeko
 ("Sagarrak biltzen" edo "Sagardoa eta itsasoa")

Astigarragako igerilekurako sarrera 3,10 euro haur bakoitzeko

Oharrak:

- Prezio hauen barruan BEZ-a sartuta dago.
- Begiraleek doako sarrera dute, bai Sagardoetxean, bai igerilekuan.
- Tarifa hauek taldeentzako bakarrik dira (gutxienez 15 laguneko taldeak).